Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

PROGRAMA	***PROGRAMA***
3223 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	*3223 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*
ARDURADUNA	***RESPONSABLE***
47 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	*47 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*
EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA	*DIRECTORA DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

HELBURUA	***OBJETIVO***
1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA.	*1. IMPULSAR LA APLICACIÓN DE LA LEY PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.*
2. INSTITUTUAREN KUDEAKETA HOBETZEA ETA GIZARTEAREKIKO ETA IRAUNKORTASUNAREKIKO KONPROMISOA SENDOTZEA, BERRIKUNTZAREN, ETENGABEKO HOBEKUNTZAREN, GARDENTASUNAREN ETA KONTUAK EMATEAREN BIDEZ, BAI ETA HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BABESTEAREN ETA EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEAREN BIDEZ ERE.	*2. MEJORAR LA GESTIÓN DEL INSTITUTO Y CONSOLIDAR SU COMPROMISO CON LA SOCIEDAD Y LA SOSTENIBILIDAD A TRAVÉS DE LA INNOVACIÓN, LA MEJORA CONTINUA, LA TRANSPARENCIA Y LA RENDICIÓN DE CUENTAS, ASÍ COMO CON LA PROTECCIÓN DE LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS Y LA PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA.*
3. EAE-KO BOTERE PUBLIKOEK BERDINTASUNAREN ARLOAN GAUZATU BEHAR DUTEN JARDUERA BIDERATZEKO JARRAIBIDE OROKORRAK EZARTZEA.	*3. ESTABLECER LAS DIRECTRICES GENERALES QUE HAN DE ORIENTAR LA ACTIVIDAD DE LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS EN MATERIA DE IGUALDAD.*
4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILE GUZTIAK BERDINTASUNAREN ARLOAN TREBATZEA SUSTATZEA.	*4. PROMOVER LA CAPACITACIÓN EN IGUALDAD DE TODO EL PERSONAL DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS.*
5. EAE-KO INSTITUZIO PUBLIKOEI LAGUNTZEA BERDINTASUNA EUREN ANTOLAMENDUAN, LAN-PROZEDURETAN ETA POLITIKA ESPEZIFIKOETAN TXERTATZEN.	*5. APOYAR A LAS INSTITUCIONES PÚBLICAS VASCAS PARA FACILITAR LA INTEGRACIÓN DE LA IGUALDAD EN SU ORGANIZACIÓN, EN SUS PROCEDIMIENTOS DE TRABAJO Y EN SUS POLÍTICAS ESPECÍFICAS.*
6. EAE-N BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK GAUZATZEKO KOORDINAZIOA BULTZATZEA.	*6. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA CAE.*
7. ESTATU MAILAKO ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA AREAGOTZEA.	*7. INCREMENTAR LA COOPERACIÓN ESTATAL E INTERNACIONAL.*
8. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA.	*8. PROMOVER EL EMPODERAMIENTO PERSONAL, COLECTIVO, SOCIAL Y POLÍTICO DE LAS MUJERES.*
9. ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA ERALDATZEA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.	*9. IMPULSAR LA TRANSFORMACIÓN DE LA ORGANIZACIÓN SOCIAL Y ECONÓMICA PARA GARANTIZAR DERECHOS.*
10. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA MURRIZTEN ETA PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA ARRETA HOBETZEN LAGUNTZEA.	*10. CONTRIBUIR A REDUCIR LA VIOLENCIA MACHISTA CONTRA LAS MUJERES Y A MEJORAR EN LA PREVENCIÓN, LA DETECCIÓN Y LA ATENCIÓN.*

BETETZE MAILA

1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA.

Martxoaren 16an, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen (aurrerantzean, Berdintasunerako Legea).

Emakunderen eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren arteko lankidetza-lanaren ondorioz, Gobernu Kontseiluak, 2024ko martxoaren 12an egindako bilkuran, EAEko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko jarraibidea onartu zuen.

Era berean, legea garatzeko prozesuak abiarazi dira hurrengo gaietan: dirulaguntzak, generoaren araberako eraginaren ebaluazioak, plan estrategiko eta sektorialak, Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-arloko prestakuntza-plana, Berdintasunerako Behatokia eta genero-indarkeriari buruzko inkesta.

2. INSTITUTUAREN KUDEAKETA HOBETZEA ETA GIZARTEAREKIKO ETA IRAUNKORTASUNAREKIKO KONPROMISOA SENDOTZEA, BERRIKUNTZAREN, ETENGABEKO HOBEKUNTZAREN, GARDENTASUNAREN ETA KONTUAK EMATEAREN BIDEZ, BAI ETA HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BABESTEAREN ETA EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEAREN BIDEZ ERE.

Emakunderen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2024ko Plana gauzatu da.

Emakunderen 2022-2024 Kudeaketa Publiko Aurreraturako Plana garatu dugu, eta Q-Epea Bikaintasunaren aldeko Euskal Erakunde Publikoen taldean parte hartu dugu.

Euskararen Erabilera Kudeatzeko 2024ko Plana landu eta garatu dugu. VII. Plangintzaldiko Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2024-2027 Plana eta Hizkuntza-Irizpide berriak onartu dira.

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak bilera bat egin du otsailaren 5ean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia onartzeko.

Jarduketa-memoriak prestatu ditugu, honako hauei dagozkienak: Emakunde, Begira, Defentsoria eta Gizonduz.

3. EAE-KO BOTERE PUBLIKOEK BERDINTASUNAREN ARLOAN GAUZATU BEHAR DUTEN JARDUERA BIDERATZEKO JARRAIBIDE OROKORRAK EZARTZEA.

Otsailaren 13an, Gobernu Kontseiluak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia onartu zuen eta otsailaren 28an aurkeztu zen.

GRADO DE CUMPLIMIENTO

1. IMPULSAR LA APLICACIÓN DE LA LEY PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.

El 16 de marzo de 2023 el Parlamento Vasco aprobó el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (en adelante Ley para la Igualdad).

Fruto del trabajo de colaboración entre Emakunde y la Dirección de Patrimonio y Contratación, el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 12 de marzo de 2024, aprobó la Instrucción sobre incorporación de la perspectiva de género y cláusulas para la igualdad de mujeres y hombres, en la contratación pública de la CAE.

Asimismo, se han puesto en marcha procesos para el desarrollo de la ley en materias relativas a las subvenciones, a las evaluaciones de impacto en función del género, a los planes estratégicos y sectoriales, al plan de formación en igualdad del Gobierno Vasco, al Observatorio para la Igualdad y a la Encuesta sobre violencia de género.

2. MEJORAR LA GESTIÓN DEL INSTITUTO Y CONSOLIDAR SU COMPROMISO CON LA SOCIEDAD Y LA SOSTENIBILIDAD A TRAVÉS DE LA INNOVACIÓN, LA MEJORA CONTINUA, LA TRANSPARENCIA Y LA RENDICIÓN DE CUENTAS, ASÍ COMO CON LA PROTECCIÓN DE LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS Y LA PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA.

Se ha ejecutado el Plan para la Igualdad de mujeres y hombres 2024 de Emakunde.

Se ha desarrollado el Plan de Emakunde para la Gestión Pública Avanzada 2022-2024 y se ha participado en el grupo de Entidades Públicas Vascas por la Excelencia-Q-Epea.

Se ha elaborado y desarrollado el Plan de Gestión del Uso del Euskera 2024. Se ha aprobado el Plan de Normalización del Uso del Euskera del VII periodo de planificación 2024-2027, así como los nuevos criterios lingüísticos.

El Consejo de Dirección de Emakunde ha realizado una reunión el 5 de febrero para la aprobación de la Estrategia 2030 para la Igualdad de mujeres y hombres.

Se han elaborado las 4 Memorias de actuación relativas a Emakunde, Begira, Defensoría y Gizonduz.

3. ESTABLECER LAS DIRECTRICES GENERALES QUE HAN DE ORIENTAR LA ACTIVIDAD DE LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS EN MATERIA DE IGUALDAD.

El 13 de febrero el Consejo de Gobierno aprobó la Estrategia 2030 para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE y que fue presentada el día 28 febrero.

EAEko udalerri, kuadrilla eta mankomunitateentzako dirulaguntzen deialdia egin dugu: laguntza teknikoa ematen diegu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasun-planak eta plan sektorialak sortu eta ebaluatzeko. 86 proiektu aurkeztu dira, eta horietatik 67ri eman zaie dirulaguntza.

Se ha realizado y ejecutado la convocatoria de subvenciones, dirigida a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la CAE destinadas a proporcionar la asistencia técnica necesaria para la realización de diagnósticos y/o elaboración y evaluación de planes para la Igualdad de Mujeres y Hombres y planes sectoriales. Se han presentado 86 proyectos de los que se han subvencionado 67.

Berdintasunerako 7 toki-plani buruzko txostenak egin dira, EAEn indarrean dagoen Berdintasunerako Planean ezarritako jarraibide orokorretara egokitzeari dagokionez. Eta udalei aholkularitza eman die berdintasun-planak egiteko eta materialak prestatu eta berrikusteko hasitako prozesuan.

Se han informado 7 planes locales para la igualdad, con relación a su adecuación a las directrices generales establecidas por el Plan vigente para la Igualdad de la CAE. Y se ha asesorado a ayuntamientos en el proceso iniciado para la elaboración de sus planes para la igualdad y en la elaboración y revisión de materiales.

Botere publikoek EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako egindako jarduerei buruzko urteko txostena egin da.

Se ha elaborado el informe anual sobre las actividades desarrolladas por los poderes públicos, en ejecución del Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombre en la CAE.

4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILE GUZTIAK BERDINTASUNAREN ARLOAN TREBATZEA SUSTATZEA.

4. PROMOVER LA CAPACITACIÓN EN IGUALDAD DE TODO EL PERSONAL DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS.

IVAPekin elkarlanean aritu gara, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Berdintasunari buruzko Prestakuntza Planaren jarraipena eta garapena egiten.

Se ha colaborado con el IVAP en el seguimiento y desarrollo del Plan de Formación en Igualdad para la Administración General y sus Organismos Autónomos.

Prestakuntza-beharren diagnostiko bat egiten hasi da, Berdintasunerako hurrengo Prestakuntza Plana egiteko.

Se ha iniciado la elaboración de un diagnóstico de necesidades formativas para la elaboración del próximo Plan de Formación en Igualdad.

Eusko Jaurlaritzako, Amurrioko Udaleko eta Aiarako eta Gorbeialdeko kuadrilletako berdintasun-teknikariak hautatzeko prozesuetan lagundu dugu.

Se ha colaborado en procesos selectivos de personal técnico de igualdad del Gobierno Vasco, del ayuntamiento de Amurrio y de las cuadrillas de Ayala y Gorbeialdea.

5. EAE-KO INSTITUZIO PUBLIKOEI LAGUNTZEA BERDINTASUNA EUREN ANTOLAMENDUAN, LAN-PROZEDURETAN ETA POLITIKA ESPEZIFIKOETAN TXERTATZEN.

5. APOYAR A LAS INSTITUCIONES PÚBLICAS VASCAS PARA FACILITAR LA INTEGRACIÓN DE LA IGUALDAD EN SU ORGANIZACIÓN, EN SUS PROCEDIMIENTOS DE TRABAJO Y EN SUS POLÍTICAS ESPECÍFICAS.

Araudiaren generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko prozedurarekin lotutako 60 espediente izapidetu ditugu. Gainera, turismoari eta gazteriari buruzko 2 laguntza material prestatu ditugu eta kontsultei eta informazio-eskaerei erantzun diegu, telefonoz eta posta elektronikoz.

Se han tramitado 60 expedientes en relación con el procedimiento de evaluación previa del impacto en función del género de la normativa. Además, se han elaborado 2 materiales de ayuda sobre Turismo y Juventud y atendido consultas y peticiones de información a través del teléfono y del correo electrónico.

Ekonomia eta Ogasun Sailarekin elkarlanean aritu gara, aurrekontuetan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzeko eta Euskadiko Administrazio Orokorraren kontratu publikoak genero-ikuspegitik aztertzeko.

Se ha colaborado con el Departamento de Hacienda y Economía para promover la incorporación de la perspectiva de género en los presupuestos y para el análisis desde la perspectiva de género de contratos públicos de la Administración General de la CAE.

Europako egitura- eta inbertsio-funtsek ko-finantzatutako esku-hartzeetan genero-ikuspegia txertatzeko aholkuak eta laguntza eman da.

Se ha asesorado y apoyado en la incorporación del enfoque de género en las intervenciones cofinanciadas por los Fondos Estructurales y de inversión europeos.

Aholkularitza eman da kontratazio publikoan eta dirulaguntzetan berdintasuna sustatzeko, guztira 78 kontsultarekin.

Se ha prestado asesoramiento para promover la igualdad en la contratación pública y en las subvenciones, con un total de 78 consultas.

IHOBErekin eta EUDELekin elkarlanean aritu gara "Klima-aldaketa eta genero-ikuspegia toki-eremuan" proiektua garatzeko.

Se ha colaborado con IHOBE y EUDEL para el desarrollo del proyecto “Cambio climático y perspectiva de género en el ámbito local”.

Plan hauen prestaketan, ezarpenean eta/edo jarraipenean parte hartu da: Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Basque Country Estrategia, IV. Gazte Plana eta EAEko hezkuntza-sistemarako hezkidetzaren II. Plana, berdintasunaren eta tratu onerako bidean.

Se ha participado en la elaboración, implantación y/o seguimiento de los siguientes planes: la Estrategia Marco de Internacionalización: Estrategia Basque Country, el IV. Plan Joven y el II. Plan de Coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato.

Dirulaguntza izenduna eman zaio Gazteriaren Euskal Kontseiluari, berdintasun-politikak garatzeko.

Se ha concedido una subvención nominativa al Consejo Vasco de la Juventud para el desarrollo de políticas de igualdad.

EAEn dauden baliabide publikoak hedatzen jarraitu da, Berdingune webgunearen bidez.

Se han continuado difundiendo los recursos públicos existentes en la CAE a través del espacio web Berdingune.

6. EAE-N BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK GAUZATZEKO KOORDINAZIOA BULTZATZEA.

6. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA CAE.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde-arteko Batzordearen esparruan, Erakunde-arteko Talde Teknikoa eta lantalde teknikoak koordinatu ditugu.

En el marco de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se han coordinado el Grupo Técnico Interinstitucional y los Grupos Técnicos de Trabajo.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail-arteko Batzordearen esparruan, eta Sail-arteko Talde Teknikoa eta lantalde teknikoak koordinatu ditugu.

En el marco de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se han coordinado el Grupo Técnico Interdepartamental y los Grupos Técnicos de Trabajo.

EUDELi dirulaguntza izendun bat eman zaio tokiko eremuan berdintasun-politikak garatzeko (Berdinsarea, Basqueskola, biztanle gutxiko udalerriak...).

Se ha concedido una subvención nominativa a EUDEL para el desarrollo de políticas de igualdad en el ámbito local (Berdinsarea, Basqueskola, municipios con menor población...).

7. ESTATU MAILAKO ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA AREAGOTZEA.

7. INCREMENTAR LA COOPERACIÓN ESTATAL E INTERNACIONAL.

Berdintasunerako Konferentzia Sektorialean eta egitura-funtsetako berdintasun-politiken Estatuko Sarearen osoko bilkuran parte hartu dugu.

Se ha participado en la Conferencia Sectorial de Igualdad y en el Plenario de la Red Estatal de políticas de igualdad en los fondos estructurales.

Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen (CSW68) 68. edizioan parte hartu dugu, eta harekin eta nazioarteko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritu gara, baterako ekitaldiak eta programak garatzeko. Beste jarduketa batzuen artean, 2 dirulaguntza izendun izapidetu dira UNFPArentzat, lankidetza teknikoa eman da NBE Emakumeak erakundearen bi proiektutan El Salvadorren eta Afrika iparraldean eta Ekialde Ertainean (Dare to care), usko Jaurlaritza NBE Emakumeak erakundearen Generation Equality ekimen globalaren sei ekintza-koalizioetatik lautan sartzea izapidetu da. Zaintzen Aliantza Globalean ere parte hartu da.

Se ha participado en la 68 edición de la Comisión de la Condición Jurídica y Social de la Mujer (CSW68) de las NNUU y se colaborado con ésta y otras organizaciones internacionales para el desarrollo de eventos y programas conjuntos. Entre otras actuaciones, se han tramitado 2 subvenciones nominativas a UNFPA, se ha prestado colaboración técnica en dos proyectos de ONU Mujeres en el Salvador y en el Norte de África y Oriente Medio (Dare to care) y se ha tramitado la incorporación del Gobierno Vasco a cuatro de las seis coaliciones de acción de la iniciativa global Generation Equality de ONU Mujeres. Se ha participado también en la Alianza Global de los Cuidados.

Genero Berdintasunaren Europako Institutuarekin elkarlanean aritu gara, programak eta jarduketak prestatzen.

Se ha colaborado con la Comisión Europea y con el Instituto Europeo de Igualdad de Género para el desarrollo de proyectos y actuaciones.

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin lankidetzan, berdintasunari eta generoari buruzko lantaldea gidatu dugu, Europako Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren esparruan (CRPM).

Se ha liderado, en colaboración con la Delegación de Euskadi para la Unión Europea, el Grupo de Trabajo sobre Igualdad y Género en el marco de la Conferencia de las Regiones Periféricas Marítimas de Europa (CRPM).

Lankidetza-memorandum bat sinatu dugu Dominikar Errepublikako Gobernuarekin eta Txileko eta Mexikoko gobernuekin sinatutako hitzarmenen jarraipena egin dugu, eta zenbait herrialderekin elkarlanean aritu gara, berdintasunaren arloko ezagutzak, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko.

Se ha firmado un memorando de colaboración con el Gobierno de la República Dominicana y se ha hecho seguimiento de los convenios firmados con los gobiernos de Chile y México, así como colaborado con varios países para intercambiar conocimiento, experiencias y buenas prácticas en el ámbito de la igualdad.

8. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA, KOLEKTIBOA, SOZIALA ETA POLITIKOA SUSTATZEA.

Aholku Batzordeak lurralde arteko bilerak egin ditu bi hilean behin, eta Lurraldeetako 3 Aholku Azpibatzordeek saioak egin dituzte hilero.

Aholkularitza, informazioa eta komunikaziorako laguntza eman diegu hiru lurralde historikoetako emakumeen elkarteei.

Irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarte eta federazioentzako dirulaguntzen deialdia egin dugu. Horien helburu eta jardun-eremu bakarra emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzea da, eta 2023ean proiektuak gauzatzeko ematen diegu dirulaguntza. 109 eskabide aurkeztu dira, eta horietatik 104 diruz lagundu dira 129 proiektu garatzeko.

Emakumeen asoziazionismoa bultzatzeko eta emakumeek EAEko esparru guztietan parte har dezaten sustatzeko dirulaguntza programaren ebaluazioa egin da, eta dirulaguntza horren deialdiaren testua hobetzeko prozesua egin da.

Berdinsarearen esparruan, 2024ko programa garatu dugu Virginia Woolf Basqueskolarako (Euskadiko udaletako emakume hautetsientzako lehen prestakuntza-eskola).

Emakunderen berdintasunaren aldeko 2023ko saria emateko ekitaldia egin dugu, Mariasun Landari emateko, Berdintasunaren aldeko 2024ko Emakunde Saria eman zaie Amuge eta IMME elkarteei.

Dirulaguntza eman dugu, KCD garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako Zinema Ikusezinaren Jaialdian emakume batek egindako lan onenaren saria bultzatzeko.

Elkarlanean aritu gara Deustuko Unibertsitateak sustatzen duen Emakume teknologoarentzako Ada Byron sariarekin.

Bertsozale Elkarteari dirulaguntza eman diogu bertsolaritzan genero-ikuspegia txertatzea sustatzeko eta emakume bertsolarien ahalduntzea bultzatzeko.

Argiri emakume-elkarteari dirulaguntza eman diogu Irungo alarde mistoa antolatzeko.

EnpresariAK Euskadiko Emakume Enpresari, Zuzendari eta Profesionalen Federazioari dirulaguntza eman diogu, enpresa- eta zuzendaritza-eremuan emakumeak ahalduntzera bideratutako ekintzak egiteko.

9. ANTOLAKETA SOZIALA ETA EKONOMIKOA ERALDATZEA SUSTATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.

Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko HERRI ITUNA garatu

8. PROMOVER EL EMPODERAMIENTO PERSONAL, COLECTIVO, SOCIAL Y POLÍTICO DE LAS MUJERES.

Se han celebrado reuniones bimensuales de la interterritorial de la Comisión Consultiva y sesiones mensuales en las 3 Subcomisiones Consultivas Territoriales.

Se han ofrecido asesoramiento, información y apoyo para la comunicación a las Asociaciones de Mujeres de los tres Territorios Históricos.

Se ha realizado la convocatoria de subvenciones a asociaciones y federaciones de mujeres sin ánimo de lucro y fundaciones cuyo único fin y ámbito de actuación sea el de contribuir a la igualdad real de mujeres y hombres, para la realización de proyectos en el ejercicio de 2024. Se han presentado 109 solicitudes de las que se han subvencionado 104 de estas para el desarrollo de 129 proyectos.

Se ha llevado a cabo una evaluación del programa subvencional dirigido a apoyar el asociacionismo de mujeres y potenciar la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la CAE y se ha llevado a cabo un proceso de mejora en el texto de convocatoria dicha subvención.

En el marco de Berdinsarea se ha desarrollado el programa 2024 para "Virginia Woolf Basqueskola", primera escuela de formación para mujeres electas municipales de Euskadi.

Se ha celebrado el acto de entrega del Premio Emakunde 2023, para entregárselo a Mariasun Landa, y se ha concedido a las asociaciones Amuge e IMME el Premio Emakunde a la Igualdad 2024.

Se han concedido subvención a la asociación KCD-ONGD para apoyar el Premio a la mejor obra realizada por una mujer en el Festival de Cine Invisible.

Se ha colaborado con el Premio Ada Byron a la Mujer Tecnóloga promovido por la Universidad de Deusto.

Se ha concedido subvención a Bertsozale Elkartea para promover la incorporación de la perspectiva de género en la bertsolaritza y para apoyar el empoderamiento de las mujeres bertsolaris.

Se ha concedido subvención a la asociación de mujeres Argiri para la organización del alarde mixto de Irun.

Se ha concedido subvención a la Federación de empresarias, directivas y profesionales de Euskadi-EnpresariAK, para realizar acciones encaminadas al empoderamiento de las mujeres en el ámbito empresarial y directivo.

9. IMPULSAR LA TRANSFORMACIÓN DE LA ORGANIZACIÓN SOCIAL Y ECONÓMICA PARA GARANTIZAR DERECHOS.

Se ha desarrollado el PACTO DE PAIS por la igualdad y vidas libres de violencia contra las mujeres, en el marco del proyecto Generation Equality desarrollado con motivo de la

da, Beijingo IV. Konferentziaren 25 urteak ospatzeko garatutako Generation Equality proiektuaren esparruan.	*conmemoración de los 25 años de la IV Conferencia de Beijing.*
Emakumeen Nazioarteko Eguneko (martxoak 8) kanpaina antolatu dugu, lelo honen pean: «Zuetaz harro».	*Se ha llevado a cabo la campaña del 8 de marzo Día Internacional de las Mujeres bajo el lema "Orgullosas".*
Aisialdi-guneetan eta udan eraso sexistak prebenitzeko publizitate-kanpaina bat egin dugu, BELDUR BARIK programaren esparruan.	*Se ha realizado una campaña de publicidad para la prevención de agresiones sexistas en espacios de ocio y en verano, en el marco del programa BELDUR BARIK.*
Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna (azaroak 25) dela eta, sentsibilizazio-kanpaina egin dugu, lelo honen pean: "Indarkeria matxista ukatzea haren alde egitea da. Batu gaitezen geldiarazteko"	*Se ha llevado a cabo la campaña de sensibilización con motivo del 25 de noviembre Día Internacional para la erradicación de la violencia contra las mujeres bajo el lema "Negar la violencia machista es una forma de apoyarla. Unámonos para pararla"*
Emakunderen webgunea (www.emakunde.euskadi.eus) eta sare sozialak eguneratu eta mantendu ditugu.	*Se ha actualizado y mantenido el portal www.emakunde.euskadi.eus y las redes sociales de Emakunde.*
Urteko Zifrak txostena egin da.	*Se ha elaborado el informe Cifras anual.*
Genero-ikuspegidun memoria historikoari buruzko gida egin eta argitaratu da.	*Se ha elaborado y publicado una guía sobre memoria histórica con perspectiva de género.*
Honako argitalpen hauek egin dira: Legearen ebaluazio-txostena, Berdintasunerako klausulei buruzko ebaluazio-txostena, Hiri-antolamenduko plan orokorren eragina ebaluatzeko gida.	*Se han realizado las siguientes publicaciones: Informe de evaluación de la Ley, Informe de evaluación sobre cláusulas para la igualdad, Guía de evaluación de impacto de los planes generales de ordenación urbana.*
Generoarekin eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako zenbait alderdi eta faktore aztertzen dituzten hiru ikerketa-beken esleipena ebatzi dugu.	*Se ha resuelto la adjudicación de la convocatoria de tres becas de investigación que abordan el análisis de diversos aspectos y factores relativos al género y la igualdad de mujeres y hombres.*
Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanen XI. Lehiaketa ebatsi dugu eta XII. Lehiaketaren deialdia egin dugu.	*Se ha resuelto el XI. Certamen de trabajos de investigación en materia de igualdad entre hombres y mujeres y se ha convocado el XII. Certamen*
Emakunderen Berdintasun Eskola (EBE) aurkeztu eta abian jarri da, herritarrak sentsibilizatzeko, prestatzeko eta gaitzeko online gune gisa, berdintasuneko hainbat gairi buruzko 32 ikastaro eskainiz.	*Se ha presentado y puesto en marcha la Escuela de Igualdad de Emakunde (EBE), como espacio online que impulsa la sensibilización, formación y capacitación de la ciudadanía a través de una oferta de 32 cursos sobre diferentes temas de igualdad.*
Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan aritu gara teknikoki eta ekonomikoki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Etengabeko Prestakuntzako Masterra: Berdintasun Eragileak, 2023-2024 edizioa garatzeko, eta hurrengo edizioa (2024-2025) garatzeko ere.	*Se ha colaborado técnica y económicamente con la Universidad del País Vasco para el desarrollo de la Edición 2023-2024 del Máster en formación Permanente Igualdad de Mujeres y Hombres: Agentes de Igualdad, así como para el desarrollo de la próxima edición (2024-2025).*
UPV-EHUrekin elkarlanean jarraitu dugu, onlineko bi ikastaro emanda: Emakumeen eta gizonen berdintasuna/Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak.	*Se ha continuado colaborando con la UPV-EHU, en la impartición de dos cursos online: Igualdad de mujeres y hombres; y Masculinidades. Hombres e Igualdad: retos y resistencias.*
Deustuko Unibertsitatean ematen den Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterra egiteko 6 beka eman ditugu.	*Se han concedido seis becas para la realización del master en intervención en violencia contra las mujeres que se imparte en la Universidad de Deusto.*
Udako ikastaroa egin da UPV/EHUrekin lankidetzan: Gazteen kultura digitalaren azterketa, ondorioak sozializazioan eta hezkuntza afektibo sexuala ikuspegi feministatik (ekainak 25 eta 26).	*Se ha realizado el Curso de verano en colaboración con la UPV/EHU titulado: Análisis de la cultura digital de la juventud, repercusiones en socialización y educación afectivo sexual desde la perspectiva feminista (25 y 26 de junio).*
Diru-laguntza bat eman diogu Maite Albiz Emakumeen dokumentazio-zentroari.	*Se han concedido una subvención al Centro de documentación de Mujeres Maite Albiz.*

Dokumentazio-zentroa kudeatzeko eta mantentzeko lanak egiten jarraitzen dugu, baita erabiltzaileei eman behar zaien arretarekin lotutakoak ere. Telefono bidezko 230 kontsultari erantzun zaie, kanpoko 180 informazio-eskaerari eta 310 mailegu egin dira.

Se siguen realizando las labores de gestión y mantenimiento del Centro de Documentación y las derivadas de la atención a las personas usuarias. Se han atendido 230 consultas telefónicas, 180 solicitudes externas de información y se han realizado 310 préstamos.

Eremu pribatuko sexua dela eta, bereizkeriaren inguruan herritarrek egindako eskabideak izapidetzen jarraitu dugu.

Se ha continuado con la tramitación de las solicitudes ciudadanas en materia de discriminación por razón de sexo en el ámbito privado.

BEGIRA Batzordearen esparruan, kode deontologikoan oinarritutako hilketa matxisten kasuei hedabideek emandako informazio-tratamendua ikertu da, eta Batzordearen osoko bilkuran aurkeztu da.

En el marco de la Comisión BEGIRA se ha llevado a cabo una investigación del tratamiento informativo de los medios a casos de asesinatos machistas a partir del código deontológico y se ha presentado en el plenario de la Comisión.

Publizitate eta komunikazio sexistari buruzko kexak aztertzen eta izapidetzen jarraitu dugu, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen esparruan (BEGIRA).

Se ha continuado con el estudio y tramitación de quejas sobre publicidad y comunicación sexistas en el marco de la Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación (BEGIRA).

Euskadin SOLDATA-ARRAKALA murrizteko Estrategiaren diseinua, koordinazioa eta hedapenaren jarraipena egiteko lanekin jarraitu da.

Se ha dado continuidad a las tareas de diseñar, coordinar y hacer seguimiento del despliegue de la Estrategia para reducir la BRECHA SALARIAL en Euskadi.

Estrategiaren Emakunderen berezko jardueren ezarpena koordinatu da eta horien berri eman da.

Se han coordinado la implantación de las actuaciones propias de Emakunde dentro de la Estrategia y se ha dado cuenta de las mismas.

Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren genero-taldearen buru izan gara, eta egin dituzten bileretan parte hartu dugu.

Se ha presidido y participado en las reuniones del grupo de género de la Mesa de Diálogo Socia.

Enpresa eta erakunde pribatuek berdintasunaren inguruko diagnostikoak eta planak egiteko aholkularitza-enpresa homologatu bat kontratatzeko dirulaguntza deialdia egin dugu. 45 proiektu aurkeztu dira, eta horietatik 43 dirulaguntza jaso dute, Azkenean, enpresa batek atzera egin du.

Se ha realizado la convocatoria de subvenciones a empresas y entidades privadas para la contratación de una consultora homologada para la realización de diagnósticos y planes para la igualdad. Se han presentado 45 proyectos de los que se han subvencionado 43 habiendo una empresa desistido finalmente.

«Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetza-erakundea» aitorpena eskuratzeko eskabideak berrikusten jarraitu dugu, eta hala egokituz gero, onartu egin ditugu. 10 erakundek jaso dute aitorpena.

Se ha continuado con la revisión y, en su caso, concesión del reconocimiento como "Entidad colaboradora para la igualdad de mujeres y hombres". Se ha reconocido a 10 entidades colaboradoras.

Aholkularitza eskaintzen, kudeatzen eta jarraipena egiten jarraitu dugu berdintasunaren arloan, enpresa eta erakunde pribatuei laguntza teknikoa emateko aholkularitza-erakundeak homologatzeko prozesuetan.

Se ha continuado con el asesoramiento, la gestión y el seguimiento de los procesos de homologación de consultoras para la prestación de asistencia técnica en materia de igualdad a empresas y entidades privadas.

Emakume eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaileen BAI Sarearen eremua, topaketak eta lan-plana sustatzen jarraitu dugu. 15 lan-saio egin dira. 6 tresna garatu dira. 45 jardunbide egoki partekatu dira, eta enpresetan berdintasunean eta kudeaketan adituak diren 7 pertsonarekin lankidetzan aritu gara. Guztira, 79 erakundek osatzen dute Bai Sarea.

Se ha continuado impulsando el espacio, encuentros y el plan de trabajo de la Red BAI Sarea Red de Entidades Colaboradoras para la igualdad de mujeres y hombres. Se han celebrado 15 sesiones de trabajo. Se han desarrollado 6 herramientas. Se han compartido 45 buenas prácticas y se ha colaborado con 7 personas expertas en igualdad y gestión en las empresas. En total, 79 entidades forman parte de Bai Sarea.

Adostutako lan-planak koordinatzen, diseinatzen eta ezartzen jarraitu dugu, Emakundek Lan Ikuskaritzarekin, Osalanekin eta Euskalit-ekin dituen lankidetza-hitzarmenen esparruan.

Se han continuado con la coordinación, diseño e implantación de los planes de trabajo acordados en el marco de los Convenios de colaboración de Emakunde con Inspección de Trabajo, con Osalan y con Euskalit.

Gasteiz On Gasteizko hiri-merkataritza sustatzeko elkarteari dirulaguntza eman zaio, berdintasunaren arloan ikaskuntza- eta prestakuntza-prozesu bat bultzatzeko.

Se ha concedido subvención a la Asociación para la promoción del comercio urbano de Vitoria-Gasteiz Gasteiz

On, con el objetivo de apoyar un proceso de aprendizaje y formación en el ámbito de la Igualdad.

Dirulaguntza bat eman zaio Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari – Konfekoop –, 2024an "enpresa kooperatiboa eredu ekonomikoa eta sozietate jasangarria eraldatzeko funtsezko eragile gisa, 2. fasea" proiektua garatzeko, kontziliazio erantzukidearen diagnostikoa, prestakuntza-ibilbidea eta kudeaketa-ereduaren sistematizazioa egiteko.

Se ha concedido una subvención a la Confederación de cooperativas de Euskadi – Konfekoop, con el objetivo de desarrollar el proyecto "la empresa cooperativa como agente fundamental de transformación del modelo económico y de sociedad sostenible, fase 2" en el año 2024, para elaborar un diagnóstico, un itinerario formativo y una sistematización de un modelo de gestión de la conciliación corresponsable.

Dirulaguntza eman zaio Arizmendiarreta Fundazioari, genero-ikuspegia enpresako eredu inklusibo parte-hartzailean (MIPE) txertatzeko proiektua garatzeko.

Se ha concedido una subvención a la Fundación Arizmendiarreta, con el objetivo de desarrollar el proyecto para la integración de la perspectiva de género en el modelo inclusivo participativo de empresa (MIPE).

Gizonduz ekimenaren esparruan, Gizonduz 2030 Estrategia diseinatu da, Kontsulta Gune bat sortu da eta ekimenaren ebaluazio espezifikoa egin da. Era berean, honako hauek egin dira: Euskadiko Maskulinitatearen Kutxaren Azterketa, 2024ko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa, webgunea eguneratu, sare sozialetan zabalpena eta adingabeei, gazteei, adinekoei eta politika-arloko gizonei zuzendutako proiektu espezifikoak. Era berean, lankidetzan aritu gara NBE Emakumeak erakundearen Dare to Care proiektuarekin eta EHUko eta Elxeko Miguel Hernández Unibertsitateko maskulinitateei buruzko graduondokoekin . Guztira, 2024an, 4.232 lagunek jaso dute prestakuntza Gizonduz ekimenaren esparruan (1.700 emakumek, 2.482 gizonek, bitarrak ez diren 21 pertsonak eta 29k ez dute erantzun).

En el marco de Gizonduz, se ha diseñado la Estrategia Gizonduz 2030, se ha creado un Espacio Consultivo y se ha llevado a cabo una evaluación específica de la iniciativa. Asimismo, se ha realizado el Estudio de la Caja de la Masculinidad en Euskadi, el Programa de sensibilización y formación 2024, la actualización del espacio web, la difusión en las redes sociales y proyectos específicos dirigidos a menores, jóvenes, mayores y hombres en política. Asimismo, se ha colaborado con el proyecto Dare to Care de ONU Mujeres y con los postgrados sobre masculinidades de la UPV/EHU y de la Universidad Miguel Hernández de Elche. En total en 2024 han recibido formación en el marco de Gizonduz 4.232 personas (1.700 mujeres, 2.482 hombres, 21 personas no binarias y 29 no han contestado).

LHKrekin lankidetza-hitzarmenaren esparruan, proiektu pilotua ezartzen jarraitu da enpresetako berdintasun-planen negoziazio-batzordeei laguntza eta laguntza emateko, CRL-Emakunde taldearen eraketa eta formazioaren bidez.

En el marco del Convenio de Colaboración con la CRL se ha continuado con la implantación del proyecto piloto para avanzar en la asistencia y apoyo a las comisiones negociadoras de los planes de igualdad en las empresas, a través de la constitución y formación del grupo mixto CRL-Emakunde.

10. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA MURRIZTEN ETA PREBENTZIOA, DETEKZIOA ETA ARRETA HOBETZEN LAGUNTZEA.

10. CONTRIBUIR A REDUCIR LA VIOLENCIA MACHISTA CONTRA LAS MUJERES Y A MEJORAR EN LA PREVENCIÓN, LA DETECCIÓN Y LA ATENCIÓN.

Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko erakunde-arteko programa (Beldur Barik) garatu da 254 partaide izan direlarik.

Se ha desarrollado el Programa interinstitucional Beldur Barik de prevención de la violencia sexista entre la juventud en el que han participado 254 participantes.

Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta sentsibilizaziorako jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei diru-laguntzak emateko deialdia ebatzi dugu. 2024ko deialdian 77 eskaera egin dira 51 proiektu garatzeko.

Se ha resuelto la convocatoria de subvenciones a organizaciones, asociaciones y fundaciones que impulsen y promuevan actividades de sensibilización y/o de prevención de comportamientos violentos contra las mujeres. En la convocatoria de 2024 se han presentado 77 solicitudes para el desarrollo de 51 proyectos.

Sexu-indarkerian aditua izateko diploma abiarazi da Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, eta horretarako hitzarmen bat sinatu da maiatzaren 6an. Esparru horretan, aditu-diplomaren lehen edizioko ikasleentzako laguntzen deialdia egin da.

Se ha puesto en marcha el diploma de experto en violencia sexual en colaboración con la Universidad de Deusto, para lo cual se ha suscrito un convenio el 6 de mayo. En ese marco se ha realizado una convocatoria de ayudas al alumnado de la primera edición del diploma de experto.

Segurtasun Sailak eta beste estatistika-iturri batzuek emandako emakume biktimei eta biktimizazioei buruzko datuak erabiliz , intzidentzia eta prebalentziaren gaineko txostena egin da.

Se ha elaborado el informe sobre la incidencia y prevalencia con los datos sobre las mujeres víctimas y victimizaciones aportados por el Departamento de Seguridad y otras fuentes estadísticas.

Emakumeen aurkako indarkeriari arreta ematen dioten baliabideei buruzko datuak bildu egin ditugu, eta datu-bilketa horren ondoriozko txostena egin da.

Se ha realizado la recogida de datos sobre los recursos que atienden a violencia contra las mujeres y se ha realizado el informe derivado de esta recogida de datos.

EAEn indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzen dituzten baliabideak eta zerbitzuak geolokalizatzeko Baliabide Mapa interaktiboa eguneratu da.

Se ha actualizado el Mapa de Recursos interactivo de geolocalización de los recursos y servicios que atienden a las mujeres víctimas de violencia en la CAPV.

Lan-eremuan sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloa eguneratu da, arau-aldaketa berrienak egokitzeko. Erreferentziazko tresna da, lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta indarkeria-mota hori gertatzen den kasuetan jarraitu beharreko prozedura bat izateko.

Se ha actualizado el Protocolo contra el Acoso sexual y por razón de sexo en el ámbito laboral, a fin de adaptarlo los cambios normativos más recientes, siendo un instrumento de referencia que permita prevenir el acoso sexual y por razón de sexo en el trabajo y disponer de un procedimiento a seguir en casos en los que se produzca este tipo de violencia.

Jabetuz ekimenaren esparruko online prestakuntza-programaren oinarrizko ikastaroaren bi edizio eta desgaitasunari, indarkeria matxistaren biktima diren seme-alabei, adineko emakumeei, emakume ijitoei, sexu-indarkeriari buruzko prestakuntza aurreratuko ikastaroaren bost edizio jarri ditugu martxan.

Se han puesto en marcha dos ediciones del curso básico y cinco del curso de formación avanzada sobre discapacidad, hijas e hijos víctimas de violencia machista, mujeres mayores, mujeres gitanas y violencia sexual del programa de formación on-line en el marco de la iniciativa Jabetuz.

Hamasei prestakuntza-saio espezializatu egin dira sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zentroetako langileentzat.

Se han realizado dieciséis sesiones de formación especializada dirigida al personal de los centros de atención integral a las víctimas de violencia sexual.

Prestakuntza espezializatua eman zaie hiru lurralde historikoetako farmazia-elkargoei.

Se ha impartido formación especializada a los colegios de farmacia de los tres territorios históricos.

Prestakuntza espezializatua eman zaio Bizkaiko Abokatuen Elkargoari.

Se ha impartido formación especializada al Colegio de la Abogacía de Bizkaia.

Sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko EAEko eredu komuna diseinatzeko taldea bultzatzen jarraitu dugu, hiru foru-aldundiek osatutako taldea da, Emakundek koordinatua.

Se ha continuado impulsando el grupo compuesto por las tres diputaciones forales y coordinado por Emakunde, para diseñar el modelo común de atención a las mujeres víctimas de violencia sexual de la CAE.

Mentoring sozialeko proiektu pilotu bat garatu da, genero-ikuspegiarekin, indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeei zuzendua.

Se ha desarrollado el proyecto piloto de mentoring social con perspectiva de género para mujeres supervivientes de la violencia machista.

Bi prestakuntza-prozesu garatu dira, indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeen elkarteen artean sareak sortzea bultzatzeko.

Se han desarrollado dos procesos de formación dirigido a impulsar la creación de redes entre las asociaciones de mujeres supervivientes de la violencia machista.

Bi diru-laguntza izendun eman dizkiegu Askabide elkarteari eta Oblatas kongregazioari, emakumeen salerosketa antzeman eta identifikatzeko, eta egoera hori pairatu duten emakumeentzako laguntza eta arreta osoa kudeatzeko.

Se han concedido dos subvenciones nominativas a Askabide y a la Congregación Oblatas para la detección, identificación y gestión del acompañamiento y la atención integral a mujeres víctimas de trata.

Oblatas Kongregazioari zuzeneko dirulaguntza bat eman zaio prostituzio deslokalizatuari buruzko diagnostiko bat egiteko.

Se ha gestionado una subvención directa a la Congregación Oblatas para la elaboración de un diagnóstico sobre prostitución deslocalizada.

Sexu-esplotazioa helburu duen emakume eta nesken salerosketaren biktima diren emakumeentzako egoitza-baliabide bat daukagu.

Se cuenta con el recurso residencial para mujeres víctimas de trata con fines de explotación sexual.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta hobea emateko Erakundearteko III. Akordioaren Jarraipen Batzordearen esparruan, dagozkion Erakunde-arteko Talde Teknikoa eta Informazio Sistemen Taldea kudeatu ditugu.

En el marco de la Comisión de Seguimiento del III Acuerdo Interinstitucional para la mejora de la coordinación en la atención a las víctimas de la violencia machista contra las mujeres se han gestionado el correspondiente Grupo Técnico Interinstitucional y el Grupo de Sistemas de Información.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea
Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko erakundeen arteko III. Akordioaren jarraipen-txostena egin da.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako genero-indarkeria koordinatzeko lurraldeetako batzordeek deitutako bileretan parte hartzen jarraitu dugu, bai eta Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiak deitutakoetan ere.

Sexu-esplotaziorako Emakumeen eta Nesken Salerosketaren kontrako Mahaia kudeatzen jarraitu dugu, eta lan-saio bat egin dugu.

Espedienteak modu integratuan kudeatzeko proiektuaren hirugarren faseari hasiera eman zaio.

Se ha elaborado el Informe de seguimiento del III Acuerdo interinstitucional para la coordinación de la atención a las víctimas de violencia machista contra las mujeres en la CAE.

Se ha seguido participando en las reuniones convocadas por las Comisiones Territoriales de Coordinación de Violencia de Género de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, así como en las del Observatorio de la Violencia Machista en Bizkaia.

Se continúa gestionando la Mesa Contra la Trata de Mujeres y Niñas con fines de explotación sexual y se ha celebrado una sesión de trabajo.

Se ha iniciado la tercera fase del proyecto de gestión integrada de expedientes.